


**SELEKTIBITATEA REDOX ERREAKZIOAK (1):  
IOI-ELEKTROI METODOA/ESTEKIOMETRIA/BALORAZIOAK**

1.- 2013EA

**P2.** Erredox erreakzio honetan:



- Izenda itzazu parte hartzen duten erreaktiboak eta produktuak.
- Azaldu ezazu zein den oxidatzailea eta zein erreduktorea.
- Idatz itzazu oxidazio- eta erredukzio-erreakzioerdiak.
- Idatz ezazu erreakzio molekular doituak.
- Zenbat gramo burdina behar dira  $\text{H}_2\text{SO}_4$ -aren ur-disoluzio 0,5 M baten 10 mL kontsumitzeko?

2.-2013UA

**P1.** Potasio dikromatoak [potasio heptaoxidokromatoa(VI)] eta azido klorhidrikoak elkarrekin erreakzionatzen dute kromo(III) kloruroa, kloro molekularra, potasio kloruroa eta ura emanez.

- Azaldu zein diren erreakzioko oxidatzailea eta erreduktorea. (0,5 PUNTU)
- Idatzi oxidazio- eta erredukzio-erdierreakzioak. (0,5 PUNTU)
- Idatzi erreakzio molekular doituak. Arrazoitu. (1,0 PUNTU)
- Zenbat mL HCl 0,5 M erreakzionarazi behar da gehiegizko kantitatean den  $\text{K}_2\text{Cr}_2\text{O}_7$ -arekin 1 L  $\text{Cl}_2$  (g) baldintza nomaletan lortzeko? (0,5 PUNTU)

3.-2014EB

**G2.** Ekuazio kimiko hau emanda:  $\text{KBrO}_3 + \text{Cu} + \text{H}_2\text{SO}_4 \longrightarrow \text{Br}_2 + \text{CuSO}_4 + \text{K}_2\text{SO}_4 + \text{H}_2\text{O}$

- Idatz ezazu, eta doitu, dagokion erredox ekuazioa. (1,00)
- Adieraz ezazu zer substantzia oxidatzen eta erreduzitzen diren erreakzioan. (0,50)

**SELEKTIBITATEA REDOX ERREAKZIOAK (1):  
IOI-ELEKTROI METODOA/ESTEKIOMETRIA/BALORAZIOAK**

4.- 2015UA

**G3.** Ekuazio kimiko hau emanda:  $\text{KIO}_3 + \text{Zn} + \text{HCl} \longrightarrow \text{I}_2 + \text{ZnCl}_2 + \text{KCl} + \text{H}_2\text{O}$

- a) Doitu ekuazioa ioi-elektroiaren metodoa erabiliz. (1,00)  
b) Ondorioztatu, arrazoituz, zer espezie kimiko oxidatzen eta erreduzitzen diren. (0,50)

5.- 2016UA

**G2.** Ekuazio kimiko hau emanda:  $\text{Zn} + \text{HNO}_3 \longrightarrow \text{NH}_4\text{NO}_3 + \text{Zn}(\text{NO}_3)_2 + \text{H}_2\text{O}$

- a) Doitu ezazu ekuazioa ioi-elektroi metodoa erabiliz  
b) Adierazi zein diren oxidatzen eta erreduzitzen diren espezie kimikoak.

6.-2014UB

**G1.** Ekuazio kimiko hau emanda:



- a) Izenda itzazu substantzia guztiak.  
b) Doitu ezazu erreodox ekuazioa.  
c) Laborategian, irudikoa bezalako muntaketa bat egin da prozesua gauzatzeko.  
c1) eman ezazu tresna bakoitzaren izena, eta esan nola erabiltzen den prozesuan.  
c2) esan ezazu zer substantzia jartzen d(ir)en tresna bakoitzean.  
c3) azaldu ezazu zer aldaketa behatzen diren prozesuan zehar, eta nola jakin daitekeen noiz bukatzen den balorazioa.



(0,25)

(1,00)

(0,75)